

INFORMAZIO OHARRA

Kirmen Uribek eta Beñat Garaioak jaso dute Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa saria, ekitaldi hunkigarri batetan

Senide, lagun eta kulturaren, hezkuntzaren eta gizartearen arloetako ordezkariak lagunduta, bi sarituek jaso dute diploma Humanitateen, Kulturaren, Arteen eta Gizarte Zientzien alorretan beren eskarmentu profesionala eta ikerketa proiektua aintzatesten duena

Bilbo, 2023ko uztailak 20. Bilboko Euskalduna jauregian eman dute gaur Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa saria, 1995etik Humanitateen, Kulturaren, Arteen eta Gizarte Zientzien alorretan curriculumik onenak saritzen dituen, eta, 2019tik aurrera, baita gazteek aurkeztutako sorkuntza- edo ikerkuntza-proiektuak ere. 2023ko edizioan Kirmen Uribe idazlea eta Beñat Garaio soziolinguistika-ikertzailea izan dira sarituak, hurrenez hurren.

Erakundeetako eta kulturaren, hezkuntzaren zein gizartearen esparruetako ordezkari ugari bildu dituen ekitaldiari hasiera emateko, **Fernando Tapia** Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordeak Gazte Sariaren epaimahaiaren akta irakurri du.

Beñat Garaioak *Kia ora, takatāpui: māoriera eta euskararen biziberritze prozesuak elkarlotzen* proiektuagatik irabazi du saria eta, garaikurra jaso ondoren, hizkuntza gutxiak biziberritzeko lanean egin duen 10 urteko ibilbidea aipatu du. Jardun horrek zenbait sari ekarri dizkio. Hala ere, atsekabez adierazi du ikerkuntza-lana ez dela, hemen eta orain, nahikoa balioesten. Hori dela eta, ikerkuntzaren ildoak alde batera uztea erabaki duela jakinarazi du, jardun horrek merezi duen duintasunezko baldintzak eskainiko dituen aukeraren bat sortu artean. Bukatzeko, talentuaren ihesaren aurkako neurriak hartu beharraz ohartarazi du.

Miren Iñarra Musikeneko zuzendari nagusi eta akademikoak ezagutarazi du epaimahaiak Kirmen Uriberen alde plazaratutako epai arrazoitua.

Eusko Ikaskuntzako lehendakari **Ana Urkizak** nabarmendu duenez, idazle bati eman dakioken saririk handiena “ahots propioa” duela aitortzea da. Horixe da Kirmen Uriberen kasua, *Bitartean heldu eskutik* lehen poesia-liburutik hasita. Nolanahi ere, haren hitzetan, “begirada propioa izatea” da garrantzitsuena, munduko buruhausteen inguruan “gogoeta artistikoa egiteko ikuspegi propioa izatea”. Eta ahots hori, begirada hori, eraikitzea urteetako lana da, eta apaltasuna behar da horretarako. Ana Urkizaren iritziz, hala dihardu idazleak: “Kirmen gure herriaren, hizkuntzaren eta kulturaren ikuspegi propioa eraikiz ari da, gure herri ikuspegiari hegoak jarriz, eta gu ere unibertsal bilakatuz”.

Gazte Sariari dagokionez, Eusko Ikaskuntzako lehendakariak azaldu du Beñat Garaio dela “belaunaldi berrientzako eredurik onena, bai euskara biziberritzeko ikerkuntzaren arloan eta bai ekimen positiboen sustapenean”. Horregatik, merezimendu osoz jaso ditu txaloak eta goraipamena.

Hamabost edizioaren ondoren, azken aldiz hartu du parte sari-banaketaren ekitaldian **Txomin García** LABORAL Kutxako lehendakariak. Pozik azaldu da, azkena duen agerraldian kulturaren erreferente nabarmena den idazle eta sortzaile handi batek jaso duelako saria. Azpimarratu du Kirmen Uribek, euskaraz idazteaz gain, euskal gaien alde egin duela beti: “Istorioak aukeratzen asmo argia dago: euskal kulturaren idiosinkrasia, gure historia partikularraren iragana, oroimenerako jasotzea”. Saria “berak aipatzen duen ‘bizimodu atlantiko’ horri eusteko motibazio” izan dadila opa dio idazleari, bizimodu horrek ahalbidetzen baitio “New Yorken bizi eta itsasalde honetara, Ondarroa jaioterrira, euskarara eta euskal kulturara, herri honen historiara eta bilakabidera lotuta jarraitzea”.

Era berean, Beñat Garaio goraipatu du Txomin García. “Gasteiztar gazte-ekintzaile nabarmena” dela esan du, “ikerkuntza eta antolaketa, teoria eta praktika, ezin hobeto uztartzen dituen. Gazteentzat goi-mailako erreferentea”.

2023ko Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Sariari dagokion diploma eskuratu ostean, mutiko zela sortu zitzaion hitzarekiko lilura gogoratu du **Kirmen Uribek**. Gogoratu du edertasuna izan zela idazteko lehen eragilea, askatasuna bigarrena, eta zubiak eraiki eta lagun hurkoa entzutea hirugarrena. Jarraian gaineratu duenez, “euskara etorkizunaren, aurrerapenaren, aniztasunaren, jarraipenaren,

justiziaren sinonimoa da. Euskaraz mintzatzean mundua koloreztatzen ari gara”. Euskal Herrira noiz itzuliko den galdetu diotenean, ez dela inoiz bertatik joan erantzun du, “beti aurkituko nauzuelako euskararen baitan”.

Bukatzeko, Kirmen Uribek familiari eskaini nahi izan dio saria. Nerea emazteari berriro ezkontzeko proposamena egin dio, “New Yorke, Las Vegasen, Bilbon, Ondarroan, ilargian. Zuk ipini eguna, eta ni joan egingo naiz”.

Erakundeetako ordezkariak itxi dute ekitaldia: **Ana Ollo** Nafarroako Gobernuako Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak eta **Bingen Zupiria** Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak.

Ekitaldiari amaiera emateko, Kirmen Uriberen hitzak dituen *Munduari begiratzeko modu bat* kantua abestu du Rafa Rueda musikariak.

NOTA INFORMATIVA

Kirmen Uribe y Beñat Garaio reciben el Premio Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa en una ceremonia muy emotiva

Arropados por familiares, amigos y representantes del mundo cultural, educativo y social, ambos premiados han recogido el diploma que acredita su trayectoria profesional y proyecto de investigación en el ámbito de las Humanidades, la Cultura, las Artes y las Ciencias Sociales

Bilbao, 20 de julio de 2023. El Palacio Euskalduna de Bilbao ha acogido hoy la ceremonia de entrega del Premio Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa que desde 1995 reconoce a los mejores currículos en Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales, y desde 2019 a proyectos de creación o de investigación presentados por jóvenes. En la edición de 2023 han sido premiados, respectivamente, el escritor Kirmen Uribe y el investigador sociolingüístico Beñat Garaio.

Con amplia representación institucional y de los ámbitos cultural, educativo y social, el acto se ha iniciado con la lectura del acta del jurado del Gazte Saria a cargo de **Fernando Tapia**, Vicerrector de Estudiantes y Empleabilidad de la Universidad del País Vasco.

Tras recibir el galardón por su proyecto “*Kia ora, takatāpui: māoriera eta euskararen biziberritze prozesuak elkarlotzen*”, **Beñat Garaio** ha repasado su trayectoria de diez años en la revitalización de las lenguas minorizadas por la que ha sido varias veces premiado. Sin embargo, ha lamentado que el trabajo investigador aquí y ahora no está suficientemente valorado. Por ello, ha anunciado su decisión de abandonar la investigación hasta tanto surja una oportunidad con las condiciones de dignidad que el empeño merece. Y ha terminado advirtiendo sobre la necesidad de tomar medidas contra la fuga de talento.

Miren Iñarga, Directora General y Académica de Musikene, ha introducido el fallo razonado del jurado en favor de Kirmen Uribe.

La Presidenta de Eusko Ikaskuntza, **Ana Urkiza**, ha señalado que el mayor premio que puede hacerse a un escritor es reconocer que posee una “voz propia”. Tal es el caso de Kirmen Uribe desde su primer libro de poemas, *Bitartean heldu eskutik*. Sin embargo, en sus propias palabras, lo importante es “tener una mirada propia, es decir, una

visión propia para reflexionar artísticamente sobre las preocupaciones del mundo". Y construir esa voz y esa mirada lleva años, y precisa de humildad. Es así como, a juicio de Ana Urkiza, "Kirmen está construyendo su propia visión del país, de la lengua y de la cultura a través del mundo, poniendo alas a nuestra visión de país, y haciéndonos universales".

En referencia al Gazte Saria, la Presidenta de Eusko Ikaskuntza ha definido a Beñat Garaio como "ejemplo perfecto para las nuevas generaciones, tanto en la investigación para la revitalización del euskera como en la promoción de iniciativas positivas", por lo cual se hace plenamente acreedor del aplauso y del elogio.

En su última participación en esta ceremonia tras quince ediciones, **Txomin García**, Presidente de LABORAL Kutxa, se ha felicitado de que ello coincida con la entrega del Premio a un gran escritor, creador y destacado referente del ámbito de la cultura. Además de escribir en euskera, Kirmen Uribe ha apostado siempre por la temática vasca: "Así, en la elección de sus historias hay una intención clara: recoger para la memoria la idiosincrasia de la cultura vasca, el pasado de nuestra particular historia". Y ha deseado que este Premio "le sirva de motivación para que siga manteniendo esa 'vida atlántica' que refiere y, que, viviendo en New York, le mantiene vinculado a esta orilla, a su Ondarroa natal, al euskera y a la cultura vasca; a la historia de este país y a su devenir".

Asimismo, Txomin García ha tenido palabras de reconocimiento a Beñat Garaio, a quien ha definido como "destacado joven emprendedor vitoriano que combina a la perfección la investigación y la organización, la teoría y la práctica. Un referente de alto nivel para los jóvenes".

Una vez entregado del diploma que le acredita como Premio Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa 2023, **Kirmen Uribe** ha evocado la fascinación por la palabra que nació en él siendo aún niño. Ha recordado que su primer impulso para escribir fue la belleza, el segundo la libertad y el tercero el tender puentes y escuchar al otro. A lo que ha añadido: "El euskera es sinónimo de futuro, de progreso, de diversidad, de continuidad, de justicia. Hablando en euskera estamos coloreando el mundo". Y ante la pregunta recurrente sobre cuándo regresará a Euskal Herria, ha respondido que en realidad nunca se ha ido pues "siempre me encontraréis dentro del euskera".

Finalmente, Kirmen Uribe ha querido dedicar el galardón a toda su familia. Y ha propuesto a su esposa, Nerea, volver a casarse "en Nueva

York, en Las Vegas, en Bilbao, en Ondarroa, en la luna. Tú pon el día e iré”.

Los representantes institucionales han cerrado el acto: La Consejera de Ciudadanía y Relaciones del Gobierno de Navarra, **Ana Ollo**, y el Consejero de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, **Bingen Zupiria**.

Como broche, el músico Rafa Rueda ha cantado *Munduari begiratzeko modu bat*, a partir de una letra de Kirmen Uribe.